

INUITAK ETA DAKOTAK



Amerindiarrek dira Amerikako lehen biztanleak. Europatik joandako gizaki zuria baino askoz ere lehenago bertan bizi ziren herri indigenak dira. Horien arbasoak duela milaka urte ailegatu ziren Amerikara, Asiatik abiatuta. Gaur egungo indiarren arbasoak kontinente osoan barreiatu ziren, eta, horregatik, inuit, Dakota, komantxe, hopi, azteka, maia, inka, guaraní edota maaputxe herriak aurki ditzakegu Ipar Amerikan, Hego Amerikan eta Erdialdeko Amerikan.

Herri horietatik bi, dakota eta inuit herriak dira. **Bata zein bestea** beste izenen bidez ezagunagoak dira. Dakota herriari sioux herria ere esaten zaio. Inuitei, **berriz**, eskimal esan izan zaie. Sioux esatea, ongi dago; eskimal esatea, aldiz, itsusia da, ez da oso egokia, irain moduko zerbait baita, hitz horrek, izan ere, haragi gordin-jale esan nahi omen du. Esan dugun bezala, bi herriek jatorri bera dute. Asian dute jatorria. Inuitek, dena dela, jatori jakinagoa dute (gaur egungo Mongolia), eta, horregatik, beste herri amerindiarrek ez bezalakoak dira. Dakotak Ipar Amerikako Lautada edo zabaldietan bizi izan dira aspaldiko mendeetan.

Inuitak, **ostera**, Alaska eta Kanada eta groenlandiako lurralde izoztuetan. **Bi herriak** ehiztariak dira. Dakotek bisonteak ehizatzen zituzten bere belardi zabaletan, eta inuitek fokak eta arrainak kostalde artikoan. Inuitak, **hala ere**, nomadak izan dira urte askotan. Gaur egun dakotak eremu txikietan bizitzera derrigortuta daude eta ezin dute bere betiko bizimodua egin. Inuitek, **ordea**, lehen eta betiko bizimodua hobeto gorde dute. Dena dela, klima aldaketa eta bertan egiten ari diren gas, petrolio eta veste askoren ustiaketa itxurabagea orain arteko bizimodua koloka jartzen ari dira.

Irakurri ondoren, erantzun itzazu hurrengo galderak:

Nola deitzen zaie Amerikako lehen biztanleei?

Nondik joandakoak dira amerindiarren arbasoak?

Idatz itzazu inuit eta dakotaz gain, ze beste indiar herri aurki ditzakegu Ameriketan?

Ze beste izenarekin ezagutzen dira inuitak?

Eta zein beste izenekin ezagutzen dira dakotak?

Esan egia edo gezurra den hurrengo esaldiek diotena:

- Inuitak Alaska, Kanada eta Groenlandiako lurralde izoztuetan bizi dira.
- Inuitak ez dira inoiz nomadak izan.
- Inuitak fokak eta arrainak hartzen zituzten.
- Dakotak Ipar Amerikako lautadetan edo zabaldietan bizi ziren denbora luzean.
- Dakotek bisonteak ehizatzen zituzten.
- Dakotek basurdeak ehizatzen zituzten.
- Bai inuitak bai dakotak ehiztaariak ziren.
- Gaur egun dakotak eremu txikietan bizitzera derrigortuta daude.